




EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS



**DATUAK BABESTEKO JARDUERA
EGOKIEN ESKULIBURUA, EAE-KO
TOKIKO ERAKUNDEETARAKO
*EDUKIARI ETA ATXIKITZE SISTEMARI
BURUZKO ERANSKIN ARGITZAILEA***

2008ko ekaina

DOKUMENTUAREN AURKIBIDEA

1 JARDUERA EGOKIEN ESKULIBURUA KODE TIPOA DA.....	1
2 TOKIKO ERAKUNDE BAT ESKULIBURURA ATXIKITZEKO ARRAZOIAK.....	1
3 ZER EGIN BEHAR DA ESKULIBURURA ATXIKITZEKO?	1
3.1 ATXIKITZEKO AKORDIOA ONARTZEA.....	1
3.2 ATXIKITAKO ERAKUNDEEN ZERRENDAN SARTZEA	1
4 ESKULIBURURA ATXIKITZEAK UDAL BATENTZAT DAKARTZAN BETEBEHARRAK.....	2
5 ESKULIBURUAREN AUKERAZ BALIATZEA, DATUAK BABESTEARI BURUZKO EGOKITZAPEN PROIEKTU BAT MARTXAN JARTZEKO	2
5.1 BEHAR BEZALA (FITXATEGIAK SEGURTASUN MAILAREKIN AITORTUTA DITUZTE) BETETZEN DUTEN ETA SEGURTASUN ETA ANTOLAKUNTZARAKO NEURRI TEKNIKOAK FINKATUTA DITUZTEN TOKIKO ERAKUNDEAK ..	2
5.2 DATUAK BABESTEKO PROIEKTU BAT EZARRI BEHAR DUTEN TOKIKO ERAKUNDEAK, DBLO ETA HORI GARATZEKO ARAUAK BETETZEN EZ DITUZTELAKO.....	3

1 JARDUERA EGOKIEN ESKULIBURUA KODE TIPOA DA

Jarduera Egokien eskuliburua **kode tipoa** da EAEko tokiko erakundeetarako. Datuak Babesteko Lege Organikoak eta hori garatzen duen Araudiak Kode tipoa badirela aurreikusten dute, lan jarduera hobetzeko jarduera sektore jakin bateko datuak babesteari dagokionez. Bestalde, herri administrazioetan egiteko aukera zabalik utzi dute.

Hona hemen Jarduera Egokien Eskuliburuaren helburua:

- Tokiko erakundeei legea betetzen laguntzea,
- prozedurak egotea zuen herritarrek beren eskubideak erabili ditzaten
- tratamenduak bateratzea
- zuen langileen kontzientziazioa sustatzea herritarren datu pertsonalak erabiltzean eta
- Udaletako langileen jarduera hobetzea hau bezalako gai samur batean.

2 TOKIKO ERAKUNDE BAT ESKULIBURURA ATXIKITZEKO ARRAZOIAK

- Datuak Babesteko Lege Organikoa betetzeko
- Jarduera egokia izateko hurrengo arloetan:
 - datuak babestea
 - informazioa lortzea
 - politikan parte hartzea
 - informazio politikak, zabalkundekoak eta aldizkari ofizialetako publizitate jarduerak
- Datu pertsonalak erabiltzean, herritarren eskubideak begirunez erabiltzeko
- Herritarrek tokiko erakundearen jarritako konfiantza sozialari huts ez egiteko
- Kudeaketa prozesuak hobetzeko

3 ZER EGIN BEHAR DA ESKULIBURURA ATXIKITZEKO?

3.1 **Atxikitzeak akordioa onartzea**

Formularik onena **Bilkuraren Akordioa** izango da. Izan ere, oso garrantzitsua da gai honetan akordio zabala lortzea, denboran egonkortasuna eman diezaion.

Jokabide Egokien Eskuliburura atxikitzea borondatezkoa da EAEko tokiko erakundeentzat, datuak babesteko indarrean dagoen legeria betetzeko beharrari kalterik egin gabe.

Atxikitzeak akordioaren eredu tipoa erantsi da

Atxikitzeak akordioa EUDELi jakinaraztea

Akordioa behin lortuta, EUDELi bidali beharko zaio

3.2 **Atxikitako erakundearen zerrendan sartzea**

Akordioa jasota, EUDELek erakundea sartuko du atxikitako erakundearen zerrendan eta idazki bat bidaliko dio dagokion tokiko erakundeari.

4 ESKULIBURURA ATXIKITZEAK UDAL BATENTZAT DAKARTZAN BETEBEHARRAK

Behin tokiko erakunde bat Jarduera Egokien Eskuliburu honetara atxikita, **hori bete beharko du**. Legea betetzea dakar, baina pixka bat harago doa. Horrela, atxikitako erakundeek betebeharrak hauek dituzte:

- Jarduera Egokien Eskuliburuan (JEE) ezarritako **arauak betetzea**.
- JEEen proposatutako dokumentu eta **formularioen ereduak erabiltzea**, udalbatzaren estilo grafiko edo komunikatibora egokituta.
- **JEEen finkatutako prozedurak** ezartzea, herritarrek tokiko erakundearen aurrean **IZEA (Ikusi, Zuzendu, Ezabatu eta Aurka egin) deitutako eskubideak erabili ditzaten**.
- **Aldian behin informazio jarduerak eta prestakuntza ekintzak planifikatzea** tokiko langileentzat eta, lehentasunez, kontuz ibiltzeko datuak edo bereziki babestuak erabiltzen dituztenentzat.
- **Erakundeko langileei dekalogoia ematea**, datuak babesteko oinarrizko irizpideekin, herritarren eskubideekin eta udalbatzen betebeharrekin bat datorrena.
- JEEen ezarritakoa betetzen den **berrikusteko prozedura onartzea**, eta hala badagokio, hori ez betetzeagatik jarritako zigorrak onartzea.

5 ESKULIBURUAREN AUKERAZ BALIATZEA, DATUAK BABESTEARI BURUZKO EGOKITZAPEN PROIEKTU BAT MARTXAN JARTZEKO

Atxikitako tokiko erakundeak aukeraz baliatu daitezke, datuak babesteari buruzko egokitzapen-proiektu bat martxan jartzeko.

EAEko tokiko erakundearen egoera bildu dezakegu datuak babesteko araudiaren betetze mailaren arabera, baita egin beharreko egokitzapenen arabera ere:

5.1 Behar bezala (fitxategiak segurtasun mailarekin aitortuta dituzte) betetzen duten eta segurtasun eta antolakuntzarako neurri teknikoak finkatuta dituzten tokiko erakundeak

5.1.1 Zeintzuk dira tokiko erakunde horiek?

Egoera honetan egongo dira fitxategiak segurtasun mailarekin aitortuta dituzten tokiko erakundeak, baita Datuak Babesteko Lege Organikoa (DBLO) eta horiek garatzeko arauak betetzen dituztenak.

Erakunde horiek ezartzeko proiektu bat egin dute, kanpoko laguntzarekin edo laguntzarik gabe, eta araudia betetzen dute datuak babesteari buruz.

5.1.2 Zer egin behar dute?

Eskuliburura atxikitzeak betebeharrak gehigarri txiki batzuk ekarriko dizkie:

- JEEen ezarritako **arauak betetzea**.
- Dokumentu eta **inprimakien eredu batzuk egokitzea**
- **JEEen finkatutako prozedurak ezartzea**, oraindik horrelakorik izan ezean, herritarrek tokiko erakundearen aurrean **IZEA deitutako eskubideak erabili ditzaten**.
- **Aldian behin informazio jarduerak eta prestakuntza ekintzak planifikatzea**, oraindik horrelakorik egin ezean, tokiko langileentzat eta, lehentasunez, kontuz ibiltzeko datuak edo bereziki babestuak erabiltzen dituztenentzat.
- **Erakundeko langileei dekalogoia ematea**, oraindik horrelakorik egin ezean, datuak babesteko oinarrizko irizpideekin, herritarren eskubideekin eta udalbatzen betebeharrekin bat datorrena.
- JEEen ezarritakoa betetzen den **berrikusteko prozedura onartzea**, eta hala badagokio, hori ez betetzeagatik jarritako zigorrak onartzea.

5.2 Datuak babesteko proiektu bat ezarri behar duten tokiko erakundeak, DBLO eta hori garatzeko arauak betetzen ez dituztelako.

5.2.1 Zeintzuk dira tokiko erakunde horiek?

Hurrengo hauek egongo dira egoera horretan:

- A) Fitxategiak aitortuta ez dituzten tokiko erakundeak, eta segurtasun mailarik gabe aitortuta dituztenak (azken lege organikoaren aurreko aitortpena izatea aurreikusi da).
- B) Fitxategiak segurtasun mailarekin aitortuta dituzten tokiko erakundeak, baina DBLO eta hori garatzeko arauak betetzen ez dituztenak.
 - Ez dute informazio klausularik
 - Ez dute baimena eskatzen (beharrezkoa denean)
 - Ez dute kontraturik erabiltzen tratamendu enkarguetan
 - Ez dute prozedurarik ez eredurik herritarrek Ikusi, Zuzendu, Ezabatu eta Aurka egiteko eskubideak (IZEA) erabili ditzaten.
 - Ez dute ezarri informazioa lagatzeko prozedurararik.
 - Ez dute segurtasun neurri batzuk betetzen
 - Ez dute segurtasun dokumenturik
 - Ez dituzte egiten legeak ezarritako ikuskaritzak

5.2.2 Zer egin behar dute?

Eskuliburura atxikitzeagatik, ezartzeko proiektu bat martxan jarri behar dute datuak babesteari buruz, eta aldi hauek izan behar dituzte, tamainaren eta baliabide eskuragarrien arabera.

Ezartzeko proiektu bat martxan jartzeko erabakia

Pertsonak aukeratzea

- Zehaztea nortzuk eta nolako dedikazioarekin arduratuko diren prozesua ezartzeaz
- Egokia da hasierako unetik datuak babesteko Koordinatzailea aukeratzea (“bideratzailea” izango da).
- Proiektua ezarri ostean, datuak babesteko etengabe parte hartuko duten Eragileak zehaztea.
 - Fitxategien arduradun bat edo batzuk
 - Segurtasunaren arduraduna
 - Datu pertsonalak babesteko Batzordea abian jartzea edo ez.

Baliabideak ematea eta jardueren kronograma egitea

- Aztertzea ea Foru Aldundiko Sailak laguntzen programa bat duen ezarpen mota honetarako
- Proiektuari baliabide ekonomikoak ematea (prozesuak ez du zertan “garestia” izan behar)
- Zehaztea ea kanpoko laguntza kontratatuko den:
 - Kanpoko eskaintzak behar bezala neurtzea (antzeko beste tokiko erakunde batzuen esperientziekin alderatzea)

- Ez eskatzea “bistakoa” dena. JEEk barne hartzen ditu ereduak, klausulak, segurtasun dokumentuaren eta sortzeko xedapenen ereduak
- Kanpoko laguntzek, barneko baliabideen arabera, beste prozesuekiko erlazioa inplikatzeko duten gaiak babestu ditzakete, baita antolakuntzako hobekuntzak ere (sistemen plana, dokumentuak kudeatzeko sistema, e-administrazioko prozesuak, kalitatea, prestakuntza,...)

Erakundeko pertsoneri proiektuaren gainean jakinaraztea

- Langileek ezagutu dezaten
- Beren jarduteko modua aztertu behar dutela onartu, eta hala badagokio, aldatu dezaten.
- Prestatu, jarduerak aldatu eta eredu edo prozesu berriak sartzeko prest egon daitezzen.

Ezartzeko proiektua

- Egoera aztertzea eta diagnosa
- Neurri formalak ezartzea
 - Fitxategiak sortu eta Lurralde Historikoko Aldizkarian argitaratzea
 - Datuak Babesteko Euskal Bulegoan aitortzea
- Neurri teknikoak ezartzea
 - Segurtasun dokumentua gauzatzea Segurtasun teknikorako neurriak zehaztu eta ezartzea.
- Antolakuntza neurriak ezartzea
 - Proposatutako ereduak eta formularioak erabiltzea
 - Proposatutako prozedurak erabiltzea
- Aldian behin informazio jarduerak eta prestakuntza ekintzak planifikatzea tokiko langileentzat eta, lehentasunez, kontuz ibiltzeko datuak edo bereziki babestuak erabiltzen dituztenentzat.
- Erakundeko langileei dekalogoia ematea, datuak babesteko oinarrizko irizpideekin, herritarren eskubideekin eta udalbatzen betebeharrekin bat datorrena.
- JEEen ezarritakoa betetzen den berrikusteko prozedura onartzea, eta hala badagokio, hori ez betetzeagatik jarritako zigorrak onartzea.
- Aurreikusitako ikuskaritzak urtean bitan egitea